

# Siestak ume txikien memoria hobetzen du

GURE JENDARTEAN jakina da umeek adin batera arte siesta egiteko joera dutela, eta bost edo sei urtetik aurrera joera hori txikitu egiten dela ia desagertu arte.

Massachusettsko Unibertsitatean, Rebecca Spencer ikerlariak zuzendutako ikertaldea haurreskolan dauden umeengan siestak izan ditzakeen abantailak aztertzen ari da. Irailaren 23an *PNAS* aldizkarian argitara emandako artikuluan, siestak memoria indartzen duela adierazi zuten.

Ikerlariak egun eta erdiko proba egin zuten 40 umerekin. Lehen eguneko goizean ume guztiak memoria joko batean aritu ziren, eta arratsaldean ume horietako batzuek siesta egin zuten eta beste batzuek ez. Ondoren, goizeko joko berberean aritu ziren, eta siesta egin zutenen emaitzak %10 hobek izan ziren. Halaber, ikerlariak aztertu nahi izan zuten ea gaueko loak arratsaldeko datuak aldatuko zituen. Hurrengo goizean portzentajeak aldatu ez zirela ikusi zutenean, argi geratu zen siestaren garrantzia. ■



MASSACHUSETTSKO UNIBERTSITATEA

Ikerketan parte hartu duten haurretako bat.



# Dantzariak zorabioa kontrolatzen ikasten dute

DAVID R. TRIBBLE-CC BY SA



BALETEAN edo izotzaren gaineko patinajearen aritzen direnak gutxitan erortzen dira biraka egin ondoren. Aldiz, gutako edozeinek –baldin eta dantzari edo patinatzaileak ez bagara–, bira gutxi batzuk emanda lurrera eroriko ginateke ziur. Nolatan?

Barneko belarrian dugun likidoa biratzen hasten da guk biratzen dugunean, eta gu gelditzean likidoak biratzen segitzen du, inertiagatik. Beraz, garunak biraketaren seinalea jasotzen segitzen du, eta gu horretan aritzea espero duenez, zorabioa sumatzen dugu gelditzean.

Esandakoa gertaera naturala da, baina artistek, praktikaren poderioz, garunari irakatsi diote belarri barneko likidoaren mugimenduari kasu ez egiten. Hala, biratu ala ez, garunak ez du igortzen zorabioa eragiten duen seinalerik. ■

Esandakoa gertaera naturala da, baina artistek, praktikaren poderioz, garunari irakatsi diote belarri barneko likidoaren mugimenduari kasu ez egiten. Hala, biratu ala ez, garunak ez du igortzen zorabioa eragiten duen seinalerik. ■



**Babeslea: iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

## Pirinioetako hartzen zailtasunak

Aspaldiko elurterik handienak bota ditu aurtengo neguan Pirinioetan, eta udaberrian eguraldia ez da gehiegi hobetu. Hartzek ondorioak jasan dituzte: ekainean, hartz-kume bat hil zen, erreka bat zeharkatu nahian. Hala ere, hartzei aipatutakoek baino kalte handiagoa egiten die gizakien jarrerak.

[ttiki.com/55478](http://ttiki.com/55478)

(Euskaraz)

## XIX. mendeko kedarrak, Alpeetako glaziarrak txikitzearen erantzule

1860ko hamarkadatik aurrera nabaritu zen glaziar alpetarren urtzea. NASAko ikerlari talde baten arabera, atmosferara igorritako kedar industrialak izan daiteke gertaera horren arazoia. Berresten bada, aurkikuntzak amaiera emango dio aspaldiko eztabaida zientifiko bati.

[ttiki.com/55479](http://ttiki.com/55479)

(Gaztelaniaz)

## Erresuma Batuko Ikean eguzki-panelak salgai

Txinan ekoiztutako panelak publiko zabalarari eskainiko zaizkio Erresuma Batuan, 6.800 euroko prezioan. Eguzki panelak prezio egokian gizarteratzeko saiakera egin nahi du Ikeak eta emaitzen arabera gainerako estatuera zabalduko dute ala ez.

[ttiki.com/55480](http://ttiki.com/55480)

(Frantsesez)